




Bertsozale Elkartearen Berripapera



Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2020ko MAIATZA - 213 zenbakia

Bertsolaritza ikertzeko deialdiak, martxan

2.000 euroko bi proiektu sari eta doktorego aurreko ikerketa kontratu bat ditugu esleitzeko; ekainaren 26ra arte aurkeztu ahal izango dira proposamenak.

Edozein jakintza alorretatik abiatuta, antzerkia, bertsolaritza, kantagintza, kontalaritza edo euskaraz egiten den ahozko kultur sorkuntzaren baten ikerketa egiteko aukera ederra eskaintzen dugu aurten ere: bi deialdi jarri berri ditugu martxan, UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean.

Batetik, 2.000 euroko bi proiektu sari eskainiko dira: lanak urtebeteko epean egin beharko dira. Bestetik, UPV/EHU gaiztatuko den doktorego aurreko ikerketa kontratua eskuratzeko deialdia egin dugu; kasu honetan, UPV/EHUko Euskara eta Ikerketa errektoreordetzek ere babestu dute deialdia.

Deialdi batean zein bestean parte hartzeko, ikerketa proposamenak ekainaren 26a baino lehen bidali behar dira, eta ebazpena uztailaren 20rako jakinaraziko da.

Pello Mari Otaño beka deialdia ere, irekita

Ekainaren 19ra bitarte aurkeztu ahal izango dira proposamenak Pello Mari Otaño bekarako: Aiztondo bailarako (Gipuzkoa) ahozketasuna eta ahozko kultur sorkuntza ikertzeko helburua duten proiektuak hartuko dira aintzat, eta hautatuak 3.000 euroko dirulaguntza jasoko du lana garatzeko.

Deialdi guztiei buruzko informazio gehiago www.mintzola.eus atarian topatuko duzue.



ELI
PAGOLA
APEZETXEA
Online bertso saioa, 2020-IV-24

Doinua: Nagusi jauna hauxe da lana A

Leioa zabal, ate itxia
bertsolaritzantzat kontu bitxia
Lehenago zena hemen ta orain
bihurtu zaigu non nahi ta online
zail da sinisten...
Baina hau nola betiko ez den
ea lehenbailehen batu gaitzeken!



Ekainaren 26ra arte aurkeztu ahal izango dira ikerketa deialdietarako proposamenak. / XDZ

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Ahokotasunaren eta ahozko kultur sorkuntzen didaktika, uztailaren 9an eta 10ean

Miramar Jauregira joanda edo Internet bidez jarraitu ahal izango da ikastaroa; izen-emate epea zabalik dago.

Euskara ikasgai landu ohi darama ahokotasuna, baina ahozko komunikazioa edonon eta edonoiz ageri zaigu: ikastetxetako gainerako ikasgaietan ez ezik, ikasgelako zein handik kanpoko giza harremanetan ere bai. Antzerkia, bertsolaritza, kantua... horien bidez ahokotasuna modu gozagarrian landu daiteke, eta eragin ona izan dezake ikasgelatik kanpoko harreman ohituretan ere. Horren inguruan ariko gara uztailaren 9an eta 10ean UPV/EHUko Uda Ikastaroetan antolatu dugun eskolaren baitan: *Ahokotasunaren eta ahozko kultur sorkuntzen didaktika*.

Hezkuntza arautuan ahokotasunaren didaktikan aritzeko hainbat modu daude eta ahozko kultur sorkuntza zenbaiten didaktika esperientziak ezagutuko ditugu lehen egunean: bertsolaritzaren eta Bertsozale Elkartearen esperientzia ezagutaraziko du Mikel Artolak, eta berarekin batera izango dira Arantxa Hirigoi eta Gotzon Barandiaren antzerkiaren eta kantuaren esperientziak mahairatzeko. Hezkuntza arautuan ahokotasunaren lanketari eta horrek gazteen hizkuntza eta harreman ohituretan izan dezakeen eraginari buruz ariko zaizkigu bigarren egunean Olatz Bengoetxea, Aroa Murciano, Ainhoa Ezeiza eta Joxerra Garzia.

Ikastaroa jarraitzeko bi aukera

Interesa duen ororentzako da ikastaroa baina, bereziki, hezkuntza arautuko irakasleei (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa), ahozko kultur sorkuntzen irakasleei (antzerkia, bertsolaritza...) aisialdiko begiraleei, kultur teknikariei eta euskara teknikariei bideratuta dago.

Aurtengo egoerak ekarri du berrikuntzarik. Bi eguneko ikastaroa Miramar Jauregiko ikasgelan bertan jarraitu ahal izango da, osasun neurriak hartuta eta horiek bermatzeko kopurua mugatuta; baina online jarraitzeko aukera ere izango dute ikasleek, zuzenean. Batera ala bestera egin, izena eman behar da: ikasgelara joateko 77 euroko matrikula ordainduko da, eta etxetik jarraitzeko, 65ekoa. Zenbait kasutarako matrikula murriztuak ere eskaintzen dira UPV/EHUko Uda Ikastaroen webgunean.

Interesa duzenok zabalik duzue izen-emate epea: horretarako, www.uik.eus orrialdean duzue aukera. Informazio gehiago eta egitarau zehatza, www.mintzola.eus atarian izango duzue.

UEUko eskola, hurrengo urterako

UEUk bere eskaintzaren baitan iragarria zuen jada Mintzola Ahozko Lantegiak antolatutako Udako Bertso Eskola bi eguneko ikastaroa. Iruñeko Katakrazen zen egitekoa, ekainaren amaieran, baina egungo egoerara moldatu behar izateak dinamika bera asko baldintzatzen zuen, tailer itxurakoa izanik, eta hurrengo urtean egitea erabaki dugu. Jakinaren gainean izango zaituztegu.



Zabalik dago Udako Ikastaroetarako izena emateko epea / XDZ

Bertso plaza: desberdin baina fruituak emanez

Bertso plaza isilarazi du pandemiak baina Internet sareko plaza kantuan ari da; egoera arraroa izanagatik, egindako lanarekin gustura daude antolatzaile zein bertsolariak.

Kaleko saiorik ezean online bizi da bertsoa. Bertsozale Elkarteak Plaza eta Bidaiak ekimenak jarri ditu abian eta Bertsoa.eus atarian eskaintzen dira. Plaza ekimenaren bitartez, Lanku Kultur Zerbitzuen bidez antolatuta zeuden saioak online eskaintzeko aukera eman zaie antolatzaileei eta, dagoeneko, hainbat saio egin dira uhinen bitartez. Bidaiak ekimena ere abian da: gai eta molde berritzaileak proposatu eta esperimentaziorako gunea izatea nahi dugu.

Horretarako, lanketa berezia egin du Bertsozale Elkarteak. Saio aurretik lekua tentuz garbitzen da, bi ordu lehenago zabaltzen dira ateak eta aretoa, aulkiak eta mikrofonoak prestatzen dira segurtasun neurriak betez. Saio ostean aretoa jaso eta sakon garbitzen da.

Oier lurramendi ekimenaren koordinatzaileak kontatu digunez, osasun neurri horiek zaintzeko protokoloa zehaztea "errazena" izan da; betetzea izan da deserosoa eta arraroa. "Lankideekin distantziak mantenduz eta neurriak errespetatuz lana egitea oso arraroa izan da", esan du. Parte-hartzaileekin, are gehiago: "Berez ezohikoa den egoera baten eragiten duen tentsioari eskularru, maskara eta distantziak gehitzen badizkiozu, oso egoera deserosoak sortzen ditu", dio. Dena dela, lan handiena nola komunikatu asmatzeko eman duela esan du Oierrek. "Emailer prebentzio neurriak eta protokoloak bidaltzea litzateke errazena, baina nahi ez genuen efektua sortzen zuela konturatu ginen: urduritasuna eta tentsioa, hain justu. Beraz, elkartu orduko gela batean bildu eta ahalik eta modu naturalenean eta lasaienean azaltzeko hautua egin genuen".

Antolatzaileak, gustura

Antolatzaileei dagokienez, era askotako eskaerak eta erreakzioak jaso dituztela azaldu du Oierrek. Batzuek irtenbide bila jo dute guregana eta beste batzuek, guregandik jaso dute saioa antolatzeko proposamena. "Denekin emaitza berdina lortu dugu, ordea: gustura geratu dira", dio. "Egoera normalean saio horiek edukiko luketen entzule kopurua baino askoz altuagoa eduki dute online saioek".

Denek eskertu dute saioak kokatzeko egin dugun ahalegina. Emisioen hasieran eta amaieran antolatzailearekin lotutako bideo bat sartzeko aukera eman dugu, eta gaitegia ere herrian edo saio horren muinean kokatzeko saiakera egin dugu.

Bertsolariak, moldatzen

Egoera guztiz aldatu zaie bertsolariei. Sareko saio horietako batean baino gehiagotan parte hartu du Alaia Martinek eta sentsazio "bitxia" dela azaldu digu. "Bertsoa entzuleekin eta kideekin elkarlanean egiten da eta derrigorrezko distantzia horrek konplizitatea zailtzen du" adierazi du. "Ohituta gaude gai bat entzundakoan gai-jartzailearen keinuei erreparatzen, bertsokidearekin begirada eta keinukera gertutik irakurtzen, eta doinua eta tonua elkarrekin adosten eta nolabaiteko muga horrek ez du laguntzen abiapuntu beretik abiatzen eta eraikitzen", dio. Hala ere ondo moldatu direla esan du

eta elkarrekiko gertutasunak duen balioa eta elkarri ematen dioten babesa zenbaterainokoa den berresteko baliagarria izan dela azaldu du.

Sorkuntzan duen eraginari buruz galdetuta, "mugak" eragiten dituela dio Alaiak. "Sorkuntza eta sortzeko erraztasuna, jariora, askatasunarekin dago lotuta eta aurrez muga fisikoak ezarrita izateak ez du hori errazten, buruan ohi baino baldintza gehiago jartzen baitzikigu", azaldu du. Hala ere, saio mota horretara hori guztia jakinik joaten direnez hoztasuna ere "desagertzen" dela aipatu du: "Orain arteko saioetan inoiz baino ahalegin handiagoa egin dugu albokoari geure kidetasuna erakusteko eta aukera gozatzeko eta gozarazteko baliatzeko. Beste atmosfera bat sortzen da, desberdina", dio. Bertsozale Elkarteak lankideak han izateak "gozoago" egiten du gunea eta unea Alaiaren esanetan.

Ikus-entzulerik bertan ez izateak norberaren tentsio eta kontzentraziomailari eragiten diolagaineratu du. "Unebatzutan egoeraren arrarotasunagatik sekula baino zentratuago kanta dezakezu eta hurrengo bertsoaldian agian erlaxatu egin, jendearen bultzada hori sumatzen ez duzulako; oreka bilatzeko ariketa bat dela uste dut eta esperimentu ederra, entzuleak zenbat ematen digun ohartzeko", azaldu du. "Ez-leku batean kantatzeak lurretik urrun gaitzake eta ahalegina egin behar da burua testuinguru jakin batean kokatzeko eta bestaldean norbait dagoela gogoratzeko. Argi geratu da bertsoaren funtzio soziala zenbateraino den soziala eta sozializatzailea."

Amaitzeko, eskertuta azaldu da Alaia bertsolaritzaren ekosistema osoarentzako elkarteak bidezidor hauek eskaini izanaz: "Garai honek ere behar ditu bertsolariak, zaleak eta gertatutakoa jasoko eta aterako dituzten bertsoaldiak eta igurtzialdiak eta uste dut urte batzuk barru entzutekoak eta aztertzeakoak izango direla bertso saio hauek guztiak".

Eragileak ohiko plaza martxan jartzeko ahaleginak egiten ari dira, baina horiek orain arteko moduan eskaintzeko oraindik denbora beharko da. Beraz, bitartean, sareko plazak bertsotan jarraituko du.



Aretoak segurtasun neurriak betez prestatzen ditugu / XDZ



Puntu jarrita

AMAIA LASHERAS ZAPATA

Ea nola bizitzen dudan nik bertsozaritza inguru ez-oso-euskaldun bateko emakume gaztea izanik. Hori da Ainarak bota didan galdera.

Lehenik, aitortu behar dut berak neure burua nik neuk hartzen dudana baino bertsozariagotzat hartu duela. Niri asko kostatzen zaizkiora horrela definitzea, ez baitakit merezi dudan, benetan ote naizen eta etengabe nabil bertsozari bezala definituko nauen horren bila. Gaur arte ez naizenaz ohartu da neronek ezarri behar dudala muga hori, eta gaurkoz bada ere, horretan lagundu nau Ainarak, gaur bertsozaria sentitu naiz.

Horrekin lotuta, aurreko testuak ere aipatzen zuen guk geuk, bertsozari emakume nafarrok, hasi egin behar dugula geure buruaren erreferente izaten, inoiz izan ez ditugun horietan. Eta kontrari ditugun gauza guztiak badakizkigu, baina oraindik ez dakiguna da zer daukagun benetan gure barruan eskaintzeko, geure sormenaren muga non dagoen eta noraino iritsi gaitzekoen. Emakume bertsozariok hasiak gara gure txokoak sortzen, eta jada ez dago atzera begiratzera egingo gaituenik, motibazio hau itzaliko duenik.

Eta zaila izaten da bertsozaritzaren haria ehuneko ehunean jarraitzea herri "ez-hain-euskaldun batean". Izan ere, bertsozaritza ezezaguna da herriaren biztanleriaren erdia baino gehiagorentzako. Baina nik, besteak beste, bertsozaritza egiten dut nire herrian ezaguna egin dadin. Barañaingo biztanleok gure tabernak, eskolak eta txoko txikiak euskeraz entzun nahi ditugulako, kantuz alaitu nahi ditugulako.

Hori bai, inork maitemindu banau bertsozaritzarekin, horiek Barañaingo bertso eskolako kide guztiak izan dira. Bertso eskolan sortu ditudan harremanak inoiz sortu ditudanen artean estuenerikoa direla esan nuke. Bertan denarik ikasten, partekatzen, ematen, hartzen eta sortzen da, batez ere, azken hau.

Behin bertso eskolara sarturik ez dago atzera egiterik, bertsozaritzarekin maitemintzen gara, noizbehinka "krisiak" eduki arren. Eta zu iratxe, nire adinako emakumea izanik, zerk eramaten zaitu gehienbat oholtzara igotzera?

Koplak

Geroa euskaratik kanpainaren sustatzaileak gara

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak euskara ardatz hartuko duen etorkizun berdinzalearen aldeko kanpaina abiatu du. Euskalgintzan eragitea da gure oinarrizko balioetako bat eta, bide horretan, Kontseiluko bazkide garenez, kanpainarekin bat egin dugu: "Geroa euskaratik pentsatu eta eraiki behar dugulako, elkar hartuz eta elkar zainduz".

Poto-Finixa



eta txaloak, noiz?

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bazkideen datuak eguneratzen

Zurekin dugun harremana ahalik eta biziena izan dadin, etengabe berrikusi eta eguneratzen ditugu bazkideen datuak. Eskertuko dugu bertsozale@bertsozale.eus helbidera ondorengo datuak bidaltzea, eta, hala, gure datu basea egunean izango dugu: izen-abizenak, nortasun agiria, jaiotze data, helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta IBAN kodea. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Datu Pertsonalak Babesteko legediak xedatzen duenari jarraituz jokatu du, eta zainduko ditu datuak.



Eskuragarri www.lanku.eus atarian